

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Osteguna, 2012ko ekainaren 14a. IX. urtea. 2.367. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Udaleko eta kuadrilletako ordezkariak aurkeztu zuten, atzo, sanjoanetako egitaraua, Zerkausian. LURKIZU

Udalbatza udaletxetik aterako da Tolosako San Joan jaietan

Ekainaren 22tik 25era arteko egitaraua prestatu du udalak sanjoanak ospatzeko; jai batzordeko zenbait kidek piztuko dute suziria

Udalak sinesmen guztiak «errespetatzeko» hartutako erabakiaren haritik, prozesioa ez dute Santa Maria parrokiatik abiatuko » 2

Kirolzaleek Bedaion eta Larraitzen dute hitzordua, igandean

Abaltzisketara joaten denak Txindoki Bertikala ikusi edo egin ahalko du, eta Bedaion bizikletan edo oinez egiteko lasterketak prestatu dituzte » 4

Lain taldeari laguntzeko kontzertuak antolatu dituzte Villabonan

Musika taldeari lapurreta egin zioten maiatzean eta elkartasuna adierazteko, billabonatarrez gain, Ze Esatek, Gugaz, Lauroba eta Hesianek joko dute, etzi, Errebote plazan » 6

Bihar hasiko dituzte Ibarako gazteek beren festak

Txupinazoa 19:00etan botako dute, eta ondoren sagardo dastatzea egingo dute; larunbatean Alurren emanaldia izango da, eta igandean 'Conquistour' telebista saiokoak izango dira herrian » 7

Larramendi Auzoko Urbanizazioa

5 minutu auzo bat eraikitzeko

Parte hartu!

Ekainaren 16an, auzo kontsulta • Eman botoa!



TOLOSAKO UDALA

Jai batzordeko zenbait kidek piztuko dute sanjoanetako suziria

Ekainaren 22tik 25era bitarte ospatuko dituzte, aurten, ekitaldi eta jarduerarik nabarmenenak

Itzea Urkizu

Datorren ekainaren 22an, jai batzordean urteetan zehar lan egin duten zenbait herritarrek piztuko dute San Joan jaietako txupinazoko suziria, eta ekainaren 25era bitarte iraungo du jaiak.

Atzo aurkeztu zituzten Edurne Mendia zinegotziak eta Ibai Iriarte alkateak, kuadrilletako ordezkariekin batera, aurtengo San Joan jaiak. Iriartek, sanjoanek azken urteotan izan duten gorakada nabarmendu nahi izan zuen batetik: «Beti esan izan da inauterriak direla Tolosako festak, baina sanjoanek Tolosaron jaiak dira, eta garai batean gazte asko Hernanira joaten ziren arren, gaur egun gero eta jende gehiagok parte hartzen du San Joan jaietan, eta hori poztekoa da benetan».

Edurne Mendiak, jaiaren mamia San Joan egunaren inguruko asteburuan bilduko dela nabarmendu zuen. Besteak beste, Anje Duhalde, Elegancia Mejicana eta Oihan Vegaren emanaldiak izango dira, eta baita Iraunkorrek, Bonberenea eta Jones Brothers txarangak ere.

Kuadrilla egunean, 1.600 lagun elkartzeko dira Euskal Herria pla-

zako bazkarian, eta aurten, P ltrarekin hasitako zerbitzu aukeratu beharko dute kuadrillek, egunari kolorea eta irudimena gehitzeko. Bazkaria eta gero, 16:30etik aurrera, gazteek Iratzar taldearen erromeria izango dute dantzatzeko.

Azkenik, aurten, San Joan egunean, udalbatzako zinegotzi guztiek dantzatzeko dutela nabarmentzeko da. Arrameletik bueltan, Trianguloan egingo dute *Esku-aldatzeko soinua*.

Solstizioaren jaiak

San Joan jaietan solstizioaren jaiak ospatzen dela azpimarratu zuen Ibai Iriartek, eta tradizioa «egoera eta garai berrietara» egokitzeko sumatu duten beharra azaldu zuen agerraldian.

Tolosako Udalean egindako azken osoko bilkuran, laizismoaren inguruko mozioa hipzide izan zen: «Hau ez genuen sanjoanei begira bakarrik aurkeztu. Udalak sinesmen guztiak errespetatu behar ditu, laikoa izan behar du. Azken urteotan kultura aniztasuna hazi egin da herrian, eta denak errespetatu behar dira».

Horrela beraz, San Joan egunean parte hartzen duten eragile guztiekin elkartu direla azaldu zuen Edurne Mendia zinegotziak: «Hainbat aukera proposatu ondoren, goizean hurrenkera berean joango gara prozesioan. Udalbatza udaletxetik irtengo da; hori da desberdintasun bakanra».

Iragarki laburrak

IKASTAROA

■ **Tailer askeak.** Sormensena tailer askeak Leitzan: 6 urtetik gorako gaztetxoentzat. Uztailen 1, 2, 3 edo 4 egun, astelehe-

netik ostegunera. Egunean 2 ordu: 10:30etik 12:30era. Izena emateko azken eguna, ekainaren 15a. www.sormensena.blogspot.com.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Edurne Mendia eta Ibai Iriarte izan ziren San Joan jaietako egitarauaren aurkezpenaren. I. URKIZU

↓ San Joan jaiak 2012, egitaraua

EKAINAK 22, OSTIRALA

- **10:30.** Iturriza elkartean, mus txapelketa.
- **18:30.** Suziria udaletxeko balkoitik, eta kanpai hotsa, jaien hasiera iragartzeko.
- **18:30.** Erraldoi eta buruhandiak, Tolosako dultzaineroekin, Plaza Zaharretik irtengo dira.
- **19:00.** Iraunkorrek txaranga kalez kale ibiliko da.
- **19:00.** Tolosako margolarien XLVI. erakusketaren inaugurazioa, Txinparta elkartean.
- **20:00.** Berdura plazan, Isidoro Larrañaga Akordeoi Orkestraren kontzertua.
- **23:00.** Euskal Herria plazan, Anje Duhalderen kontzertua.

EKAINAK 23, LARUNBATA

- **09:00.** GiroArte dultzaina taldearekin Diana.
- **10:00.** Beotibarren, Tolosako Beotibar Zesta Punta Eskolak antolatuta, XXI. San Joan Zesta-Punta txapelketa.
- **10:30.** Plaza Berrian, sokamuturra.
- **11:00.** Bonberenea Txaranga eta GiroArte dultzaina taldea kalez kale.
- **11:00.** Kuadrilla egunaren hasiera, Plaza Zaharrean.
- **12:00.** Erraldoi eta buruhandiak Tolosako dultzaineroekin Plaza Zaharretik irtengo dira, Zezen plazara joateko.
- **14:00.** Euskal Herria plazan kuadrillen herri bazkaria.
- **16:30.** Euskal Herria plazan erromeria Iratzar taldearekin.
- **17:00.** Txistularien kalejira antzinako erronda bidetik barrena.
- **17:00.** Alondogia plazan haurrentzako Afrikako tailerak.
- **18:00.** San Frantzisko pasealekuan Txirrindulari Kriteriuma, Jose Manuel Ansoaren XVI. Memoria, Oriako Txirrindulari Eskolak antolatuta.
- **19:00.** Rockalean electro-txaranga eta Mulambo perkusio taldea Euskal Herria plazatik.

- **19:30.** Zerkausian bertso jaialdia: Julio Soto, Amaia Agirre, Aitor Mendiluze, Jokin Uranga, Sebastian Lizaso eta Anjel Mari Peñagarikano. Gai jartzaila: Iker Iriarte.
- **19:30.** Trianguloa plazatik Elegancia Mejicana mariatxiaren kalejira.
- **20:00.** Arrameleko San Joan Kaperan, bezperak eta arrats otoitzak.
- **20:00.** Plaza Berrian, larrain dantza Tolosako Dultzaineroak taldearekin.
- **22:00.** San Joan sua Santa Maria plazan, udalbatza bertan dela. Udaberri dantza taldea, Tolosako Musika Banda eta Tolosako Orfeoia ariko dira. San Joan zortzikoa jo ondoren, musika banda kalez kale ibiliko da.
- **23:00.** Lopez Mendizabal plazan, dantzaldia Elegancia Mejicana mariatxiarekin.
- **23:30.** Plaza Berrian disko jai Oihan Vegarekin.

EKAINAK 24, IGANDEA

- **07:00.** Zinegotzien deia Tolosako Txistulari Bandaren eskutik.
- **08:30.** Diana, Tolosako Musika Bandarekin.
- **08:45.** Diana, Tolosako eta Iruñeko txistulari bandekin.
- **09:00.** Diana, Tolosako Dultzaineroak taldearekin.
- **09:00.** Txirrindularien irteera, XXXIX. Jose M^a Anza Memoria lasterketan.
- **09:30.** Plaza Zaharrean Eskopetariak eta Tolosako Musika Banda bilduko dira. Diana, desfilea, eta, ondoren, San Joan alardea, Gipuzkoako antzinako foru milizien oroimenez.
- **10:00.** Meza nagusia Santa Maria parrokiaren. Segidan, ohiko sanjoanetako prozesioa, eskopetariaren salbekin, Tolosako erraldoiekin, bordondantzariekin, txistulari bandekin eta udal agintariaren segizioarekin. Amaieran, Euskal Herria plazan

elkartuko dira eskopetari guztiak.

- **11:00.** Oria ibaian batel estropadak.
- **11:45.** XXXIX. Jose M^a Anza memorialaren amaiera.
- **13:00.** Tolosako Musika Bandaren eta Tolosako eta Iruñeko udal txistulari banden kontzertua, Plaza Berrian.
- **16:45.** San Joan bezperak, Santa Maria elizan.
- **17:00.** Udalbatza, musika bandan, bordondantzariak eta eskopetariak Plaza Zaharretik, Santa Maria plazara eta Arramela joango dira.
- **17:15.** Arrameleko kompletak.
- **17:40.** Udalbatza, bordondantzariak, eskopetariak, txistulariak eta musika banda Trianguloak elkartzeko dira azken deskargak egiteko. Zinegotziak *Esku-aldatzeko soinua* dantzatzeko dute. Jarraian Zumardiaundira joango dira ohiturazko aurrekura.
- **18:00.** Zezen plazan errekor-tariak.
- **19:30.** Jones Brothers txaranga kalez kale ibiliko da.
- **23:00.** Su festa: Pirotecnica Zaragozaana.
- **23:30.** Jones Brothers txaranga kalez kale ibiliko da.
- **23:30.** Plaza Berrian Flatout, Kantafloor eta Rei Kimera musika taldeen kontzertua.

EKAINAK 25, ASTELEHENA

- **11:00.** Toka lehiaketa San Frantzisko pasealekuan.
- **11:00.** Alondegi plazan haurrentzako gaztelua, ohe elastikoak eta abar arratsaldera bitarte.
- **11:30.** Zezen plazan zezentxoak eta zalditxoak haurrentzat.
- **18:00.** Alondogia plazan haur ikuskizuna Azkona taldearekin.
- **19:00.** Herri kirolak Trianguloan.
- **19:00.** Tenis txapelketaren finalak, Berazubun.

Iritzia boto bihurtzeko eguna iritsi da

Larramendiko 1.700 auzotarrek parte hartu ahal dute etzi egingo den auzoari buruzko kontsultan

Imanol García Landa

Larramendi auzoari buruzko kontsulta etzi izango da, hilaren 16an. Ia 1.700 auzotar daude deituta bi aukeren artean erabakitze-ko. Alde batetik, A aukera, lurperatzea bere barne hartzen duen proiektua. Bestetik, B aukera, lurperatzerik gabekoa eta modu horretara geldituko ziren 2,5 milioi euro beste azpiegituretara bidertatzea proposatzen duena.

Auzoko Arkante etxean, egun Gurutze Gorriaren egoitza dena, egingo da bozketa, eta ordutegia 09:00etatik 20:00etara izango da. Proposamen bat edo beste aukeratzeko parte hartze prozesu bat antolatuko du Tolosako Udalak eta Nola Eskola aholkularitzak dinamizatu du.

Agurtzane Loidi aholkulariak prozesuaren talde eragilean hiru alorren garrantzia izatea nabarmendu du: «Politikoak, teknikoa eta auzotarren ikuspegia, azken honetan, gainera, hainbat iritziz zituztenak». Loidirentzat «denon arteko adostasunarekin» zenbait gauza egiten joatea «garrantzitsua» izan da: «Adibidez, argitalpenan bi aukerak ahalzere objektiboan ateratzea». Kontsultan aukera bat edo beste atera, auzoan gaiak kezka sortu dela dio Loidik, eta kontsultaren ondoren auzoaren alde egin behar dela dio, «auzo bizi bat lortzeko».

Bi auzotar taldeen arazoak

Auzoan bi talde lanean ari dira, bakoitza aukera baten alde. Larramendi kalea lurperatzearen aldeko bizilagun taldeak A proposamenarekin bat egiten du. «Plaza ikaragarri handi bat sortzen du, oinezkoek erabili ahal izateko kotxerik gabe, horrek ematen duen segurtasun eta lasaitasunarekin», esan dute bere aukera ematen duen segurtasun eta lasaitasunarekin», esan dute bere aukera ematen duen segurtasun eta lasaitasunarekin», esan dute bere aukera ematen duen segurtasun eta lasaitasunarekin», esan dute bere aukera ematen duen segurtasun eta lasaitasunarekin».

Horrez gain, A aukerak «ez du zona berderik kentzen, ez baitu adreilu gehiago eransten Arkauteko parkeari lurzorua kenduz», azaldu dute. Lurperatzearen obra «erabat segurua» dela diote: «Etxe berrietan hiru solairuko aparkalekuak egin dira eta lurperatzeak ez du hainbesteko zulaketarik eskatzen».

Aukera bateko zein besteko obrek izango luketen epeak aldeztatzerakoan, garbi dute «ezinezkoa dela antzekoak izatea. Lurpe-



Larramendi auzoko errepide nagusia. IGL

ratzearen aukeraren obrak bihar hasi daitezke».

Lurperatzearen aldeko taldeak, «oro har partaidetzaren alde egonik», ez dute ulertzen «dagoeneko onartua, proiektatuta, aurrekontua eginda, finantzatuta... dagoen proiektu baten inguruan eskatzen den partaidetza, eta udalak zergatik sartzen duen eskua erabaki libre bat hartu duten bizilagun batzuen erabakian». Bestalde, kontsultarako galdera zehazteko «logikoagoa eta garbia» ikusten dute «Lurperatzea bai (A aukera)» eta «Lurperatzea ez (B aukera)» jarri izan balitz. Horrez gain, «udalak sustatutako etabaidaren ondorioz ez dakigu zenbat diru gastatzen ari den eta nork eta nola ordainduko den kudeaketa-prozesu-proiektu guzti hau», esan dute.

Beste taldea Larramendi Bizirik da eta B aukeraren alde azaldu da. Euren ustez, «informatuz eta hainbat txosten esku artean izaniz, lurperatzea egiteak baino, ez egiteak, auzoari askoz ere gehiago ematen dionaren ondorio garbira heldu gara». Ez dute, «orain auzotarren artean, Larramendi «Tolosaren sarrera izaterik nahi» eta azpiegituren hornitutako «auzo bizi bat» nahi dutela esan dute, «finean elkarbizitza sustatuko duena».

Euren ustez, «lurperatzea aurrera eramateko suposatzen duen inbertsio tekniko eta ekonomikoak ez dio inolaz ere gehiegizko eraikigarritasunak sortzen duen azpiegitureta ekipamendua eskasari aurre egiten». Larramendi Bizirik elkartetik «inbertsio soziala» defendatzen dutela diote: «Zementu eta adreiluak auzo baten aurrera ematen den arteko hartu emanak errazteko az-

piegiture sozialak eta bizilagunen arteko integrazioa bultzatuko duten bilguneen aldeko apustua egiten dugu».

Kontsulta egitearen inguruan, Larramendi Bizirik taldeak azaldu duenez, «ilusioz betetzen gaituen proiektu bat dugu esku artean». Jendearren partaidetza bultzatuko duen auzo bat sortu nahi dutela diote, «dinamikoa, bizilagunen arteko integrazioa bultzatuko duena». B aukera ateratzen bada, «oso garrantzitsua» iruditzen zaie «2,5 milioi euro horiek inbertitze garaian udalak auzotarrek kontuan eduki izana». Larramendi Bizirik-ek dioenez, «azken finean auzo, auzotarrok, auzotarrentzat eraikitzen baitugu eta 2,5 milioi euroekin errazteko izango da».

Udalbatzako alderdien iritzia

Tolosako udalbatzaren osoko bilkuretan hainbatetan izan dute hizpide Larramendi auzoa. Bildu koalizioak azaldu duenez, «zalan-tzarik gabe» B proposamenaren alde egiten dute, «hau da, auzotarra ekimenduen alde eta lurperatzearen aurka». Koalizioak dienez, «ez dago txosten tekniko bakar bat, askotan eskatu dugun arren, lurperatzearen alde egiten duenik». Euren iritziz, «lurperatzea berez da txarra kasu honetan, baina gainera, haren ordean auzoak behar dituen dotazioak eraikitzea oso egoki ikusten dugu». Koalizioaren arabera, «funtsean bi proiektuen artean dagoen aldea hau da: A proposamenarekin betirako herriko sarrera izatera zigortu, edo B proposamenarekin benetako auzo bat eta herri bat eraiki».

Kontsulta egiteari dagokionez, udalak garatu duen prozesua

«oso begi onez» ikusi dute koalizioetik. «Hainbat iritzi zeuden auzoan eta batzuk, aspalditik berri bizi direnak, ez dituzte inoiz aintzat hartu». «Iritzitalka horren aurrean» udalak «demokrazia zuzena» erabili dela gaineratu dute. «Txalogarria» dela deritzote eta auzotar guztiak bozkatzera eta «auzo elkarrekin eraikitza» animatu dituzte.

EAJK Larramendi kalea lurperatzea proposatzen du: «Trafikoa begibiztatzeko kentzea eta auzo handi horri leku lasai eta kotxerik gabekoa eskaintzea, auzokideak lasai ibili daitezkeen inolako baldintzarik gabe plaza handi batean». Trafikoaren eragina Uzturre kalean ere jaitsiko dela dio EAJK: «Guk pentsatzen dugu ez dela Uzturre kalea trafikokoarekin kargatu behar, auzoko kale lasai bat izan behar delako auzokideak lasai bizi daitezkeen».

Alderdi jeltzalearen ustez, kontsultaren proiektuan «ez da batez beste inoiz oportunitate edo aukera»ren irizpidea. Ez da kontsultarako garaia. Urbanizazio proiektua egin zegoen, auzotar berriek Larramendi kalea lurpe-

ratutako proiektua begien aurrean zutelarik erosi zuten etxea, eta orain aldatu nahi du udalak etxebizitza gehienak eraikiak eta salduak daudenean. Ez da inolaz ere egokia. Horregatik auzotar asko haserre daude».

PSE-EE «proiektu orijinala mantetzearen alde» agertu da, «hau da, lurperatzearen alde». Larramendiko bizilagunek proiektu baten arabera erosi zutela bere etxebizitza, eta hori errespetatu behar dela dio PSE-EEK. «Bizilagunentzat lurperatzea proiektua ez mantentzea iruzur hutsa da. Gainera auzoarentzat proiekturik onena da. Udal gobernuak etabaida ez zegoen gai batean aldaketa hau proposatu du, beraiek jakingo dute zein den bere asmoa», gaineratu dute.

Kontsultan udal gobernuak ez duela «irizpide objektiborik, ezta araurik», dio PSE-EE alderdiak, eta gaineratu, «udal gobernuak, Bilduk eta Aralarrek, bere interes politikoen arabera jokatzeko dute. Partaidetza eta kontsultak planteatzeko garaian ez dute garbi jokatzeko».

Aralarrek ez du uste alderdiek jarrera zehatz bat defenditu behar dutenik Larramendi auzoaren moduko auzitan. «Herritarrek beraiek erabaki behar dute, libreki eta beren irizpideak oinarri hartuta, Larramendirako zein den alternatibarik egokiena», azaldu du. «Udal gobernuak proiektu alternatiboa egin izana eta herritarrei bi proiektuei buruz aukeratzeko parada eman izana» babestu du eta bere egin ditua Aralarrek.

Kontsulta egiteari buruz, «herritarren eragin zuzena duten proiektuei buruz beraiei zuzenean galdetzea demokraziaren izpirituaren ikuspegitik oso egokia iruditzen zaigu», diote Aralarretik. Herritarrek erakundeek gobernuan parte hartzearen esanahia «herritarrek erabakiak hartu aukera izan behar dutela» da, Aralarrek dioenez. «Kontsultak herritarrek erabakiak hartu ahal izateko modu bat da, gardenena seguruenik, eta Larramendikoa segida baten lehena izatea» espero dute.

LASKORAIN IKASTOLAK LANGILE HAU BEHAR DU AMATASUN BAJA BAT BETETZEKO

- Haur-Hezkuntzako teknikaria edo Majisteritzan diplomaduna, Haur Hezkuntzan.

Derrigorrezkoa: EGA titulua
Curriculumak e-mailez bidali behar dira
tolosa@ikastola.net helbidera.

Jasoko diren azken eguna, ekainaren 19a

TOPAk osasun publikoaren aldeko informazioa emango du

Tolosako kultur etxean izango da batzarra, larunbatean, 12:00etan; hilaren 30rako, berri, manifestazioa deitu du

E. Maiz Tolosa

Duela urtebete baino gehiago da Tolosaldeko eskualdeko ospitale publiko bat eta espezialitate-erako anbulatorioa ez desegitea eskatzen ari direla Tolosaldea Osasun Publikoaren Aldeko plataformako kideak. Eusko Jaurlaritzako Osakidetzak entzungor egiten jarraitzen duela eta, informazio batzarra egingo dute Tolosako kultur etxean, 12:00etan, etzi. Koordinakundeak, Asuncion Klinika eta beste eskualdeetako ospitale publikoen arteko konparaketaren emaitzak aurkeztuko ditu.

2011. urteko azarotik, TOPAk adierazi duenez: «Zerbitzuen kalitatea nola joan den jaisten ikusi dugu, eta ondorioz herritarren aldetik ehunka kexa jarri dira Osasun sailean». Hala ere, Tolosaldeko osasun zerbitzuen pribatizazioarako pausoekin jarraitzen dutela adierazi dute. Guzti honengatik, «premiazkoa ikusten da herritarren mobilizazioa», gaineratu dute.

Bestalde, hilaren 30ean, manifestazioa egingo dute, 12:00etan

Bedaion eta Larraitzen kirolaz gozatzeko aukera izango da, igandean

Larraitzen lasterkariak 10:00etan hasiko dira; Bedaion, oinez 07:30ean eta bizikletaz 08:30ean, abiatuko dira

Eneritz Maiz

Abaltzisketak eta Bedaiok igandean kirola egiteko edota kirolaz gozatzeko aukera eskainiko dute. Abaltzisketan III. Txindoki Bertikala proban lehiatuko dira 200 lasterkari inguru. Bedaion, aldiz, oinez edota bizikletaz egiteko ibilbideak prestatu dituzte.

Larraitzeko langatik Txindokiren tontorreraino iristeko helburuarekin, 10:00etan aterako da lehen parte hartzailea. Erlojuaren aurkako proba da. 3.878 metroko luzera du korrika egin beharreko bideak, eta 931 metroko desnibelari egin beharko diote aurre.

Antolatzaileek izena emateko epea luzatu egin dute, eta III. Txindoki Bertikalean parte hartu nahi duenak, gaur, hilak 14, 20:00ak bitartean izango du izena emateko aukera. Izena, txindokibertikala.blogspot.com edo www.kirolprobak.com helbideetan eman daiteke. Euskal zirkuituan sartuta dago, eta puntuagarria izango da. Lehen hiru emakume eta gizon sailkatuek, 300, 200 eta 100 euroko sariak jasoko di-



Txirindulari askok hartu ohi dute parte BTT ibilbidean. HITZA

tuzte. Beterano eta gazte mailakorentzat ere izango da 100 euroko saria. Errekorra hausten duen gizon edo emakumearentzat ere sariak prest dituzte.

Bedaioz gozatzeko aukera

Kirola egin nahi duenak, oinez ala bizikletaz, aukera paregabea izango du, Bedaion. Naturaz gozatzeko aukera ederra izango da, egin beharreko ibilbidea, Aralar-ko parke natureletik barrena pasako baita.

Pilotalekutik aterako dira, eta oinezkoek 07:30ean dute abiatzeko ordua, eta bizikletaz egin nahi dutenek 08:30ean. Oinez eginez gero, 6-8 orduko bidea izango da, eta BTT ibilbidea, berri, 4-5 orduan amaitzeko modukoa da.

Artubi kultur elkartetik adierazi dutenez, «jendea ari da izena ematen, baina eskertuko genuke antolakuntza lanak borobilago egin ahal izateko jendeak alde aurretik izena ematea». Egunean bertan izena emateko aukera egingo den arren, hobe, www.bedaio.com webgunean, mendimartxa@bedaio.com helbidera idatziz edota 620 199 166 telefono zenbakira deituz ematea.

Antolatzaileek, «era batera edo bestera, garai hauetan, Bedaio-rengan konfidantza jartzeagatik, eskerrak eman nahi dizkiegu laguntzaile guztiei», nabarmendu dute. Era berean, gogora ekarri dute, zenbait laguntzailek emandako materialak zozketatuko dituztela probak amaitu ostean.

→ Laburrak

Autokonpostaje ikastaroa egingo dute pilotalekuan

BIDEGOIAN > Bidegoiango Udalak antolatuta autokonpostaje ikastaroa egingo dute, larunbatean. Izena eman duten herritarrek parte hartuko dute bertan. 10:00etan hasiko dira ikastarorekin, eta pilotalekuan izango da. Norberak bere etxean konposta nola egin behar duen ikasiko dute. Pausoz pauso jasoko dituzte azalpenak, eta konpostata ona egiteko gomendioak ere emango zaizkie.

Festetako kamisetak eskatzeko epea zabalik

ALEGIA > Alegiako jai batzordeak, festetako aurtengo kamisetak martxan ditu. Izen emate zerrenda ireki dute, eta hilaren 22a bitartean egingo da zabalik. Kamisetak kultur etxean eskuratu ahal izango dira. Sei euro balio dute, eta izena ematen duten guztiarentzat egingo da eskaera eta festak hasi baino lehen egingo da banaketa.



Aurtengo festetarako kamiseta. HITZA

Uda honetan **Zatoz HITZAren itzalera**

Egin harpidedun Ekainaren 4tik Urtasaren 27ra eta laso eguzkitako hau oparil!

Harpidedunen artean **Surfboard** Surf Papanaren **surf taula** irabazteko duzu!

Harpidatzen: **902-82 02 01**
harpidatza@hitza.info

hitza

Irudia > Bidegoian



JUBILATUEN EGUNA

Pasa den larunbatean Bidegoiango jubilatuek euren eguna ospatu zuten. Lehenik eta behin, meza nagusian izan ziren, eta ondoren, herriko dantza eskolako haurrek dantza emanaldi polit bat eskeini zieten pilotalekuan bertaratutako guztiei. Eguna bazkariakin bukatu zuten. Bidaniako Kontsejuen elkartu ziren, eta mahaiaren bueltan 30 bat lagun bildu ziren (irudian). HITZA

Ibarrako Kirol elkartearen batzarra izango da bihar

IBARRA > Ibarrako kirol elkarteak, urtero bezala, lehenengo sei hilabeteari dagokion batzarra egingo du. Bihar, hilak 15, 20:30ean izango da lehen deialdia. Bigarrena, berri, 21:00etan izango da. Hala ere, zuzendaritzatik garaiz agertzeko deia egin dute. Era berean, ahalik eta partaidetza gehiena izatea nahi dute.

Alurrek matrikulazio epea uztailean zabalduko du

IBARRA > Ibarrako Alurr dantza taldeak 2012-2013 ikasturteko matrikulazio epea uztailean zabalduko du. Interesatuak matrikulazioa egiteko orria eta dantza eskolako ordutegiak Ibarrako kultur etxean eskuratu ahal izango dituzte. Bestetik, urte guztian zehar taldearekin lanean musutruk aritu diren guztiei «eskerrak» eman nahi dizkiete.

Euskal Herriko Bakarkako Sega Ligaxka jokatuko dute igandean, Iurreamendin

11:00etan egingo dute sailen eta txanden zozketa, eta ordu erdi beranduago hasiko da lehia

Rebeka Calvo

Igandean hasiko da Euskal Herriko IV. Bakarkako Sega Ligaxka, nazioarteko eran. Hiru jardunaldi izango dira, eta lehena, Tolosan izango da, Iurreamendiko zelaietan. 11:00etan sailen eta txanden zozketa egingo dute, eta ekitaldia 11:30ean hasiko da. Izena emateko epea zabaldu zutenean, saioa larunbatean, hilak 16, izango zela esan zuten, baina azkenean igandean egingo dute jardunaldia.

Sailkapen orokorra saio bakoitzean lortutako puntuaketa araberakoa izango da, eta parte hartzaileen batek saioaren batean parte hartuko ez balu, saio horretan 0 puntu jasoko litzuke.

Hurrengo saioak Etxalekun (Nafarroa) eta Zaldibian (Gipuzkoa) izango dira, hilaren 23an eta uztailaren 22an, hurrenez hurren.

Iaz, hainbat mailatan banatuta, Joxe Gabirondo, Arrate Garin, Irati Astondoa eta Aimar Garmendia izan ziren irabazleak.

→ Laburrak

Laskoraingo 2010-2011ko tituluak, Orixe institutuan

HEZKUNTZA › Laskorain ikastolak jakinarazi duenez, 2010-2011 ikasturtean ikastolan Batxilergo ikasketak egin eta titulua lortu zuten ikasleek Orixe institutuan jaso ahal dituzte diplomak NANA erakutsita.

Laborde y Labayen-ko langile ohien bazkaria

AISIA › Arte grafikoko Laborde y Labayen enpresako langile ohiak hilaren 28an elkartzeko dira bazkaldu eta Oroitzapen Ezkontzak ospatzeko. Gorriti plazan egin dute hitzordua, 13:00etan. Bazkarira joan nahi duenak 686 20 25 78 telefono zenbakira deitu behar du. Laborde y Labayen enpresa orain 38 urte itxi zuten, 1974. urtean, hain justu.

Musikak harilkatzen dituen udalekuak

Udapasa Artistikoak antolatu dituzte musika eskolan; «musikarekin sentitzea eta gozatzea» da helburua

I. Garcia Landa

Uztailaren 2tik 13ra Udapasa Artistikoak antolatu dituzte. Arterekin elkarteak da antolatzailea eta

Tolosako musika eskolan egiten dituzte. «Udaleku bereziak dira», azaldu du Aitor Biainek, Maialen Plazaolarekin batera irakasle gisa ariko dena. «Haria musika da, eta hain justu musikarekin gozatzea eta sentitzea da udalekuen helburua».

Hainbat jarduerak egiten dituzte, Biainek dioenez: «Abestia lantzen dugu. Dantza ere bai, musika sentitu eta sentimenduak plazaratzeko. Jokoak eta antzerkia ere

egiten ditugu, eta azken egunera emanaldi bat prestatuko dugu, udalekuan zehar egindakoa bitzeko». Hain justu, gurasoak joan ohi dira emanaldia ikustera, eta Biainek dioenez, «harritu egiten dira» haurrek eskaintzen duten saioarekin.

Udapasa Artistikotako irakasleak garbi utzi du ez dela musika ezagupenik behar udalekuetan parte hartzeko. «Nahikoa da musika gustatzea», esan du Biainek.

Urtero gai baten inguruan antolatzen dituzte jarduerak, eta aurtengoa animaliak izango da. Ohikoena bi talde osatzea da; bata 4-8 urte bitartekoa, eta bestea 8-12 urte bitartekoa. «Haurrek oso ondo pasatzen dute, eta hainbat gauza ikasteko ere balio die», nabarmendu du Biainek.

Izena Tolosako Eduardo Moko-roa musika eskolan eman behar da eta hilaren 29ra arte dago aukera horretarako.

kutxabank

*% **30** eko
Deskontua etxebizitzaren berrizatzeko maileguan

*% **20** ko
Deskontua autorako maileguan

*% **10** eko
Deskontua mailegu pertsonalean

Deskontu-aldia.
Orain gehien nahi duzuna gutxiago kostatuko zaizu.
ITNri ezarritako deskontuak.

Informatu zaitez zure bulegoan.

kutxa
gehiago gara.

*Etxebizitza Berrizatzeko Mailegurako ITNren gaineko %30eko deskontua. Auto Mailegutarako ITNren gaineko %20ko deskontua eta, kontsumo-funtziaz eta beste produktutarako ITNren gaineko %10eko deskontua. Deskontuak indarrean dauden Kutxabankko tarifei aplikatuko zaizkie. Baldintzak bulegoan kontsultatu. Erakunde mailegu-emaileak aurretik analizatu eta onartu behar ditu baldintzak. Eskaintza eskusiboa hurrengo produktutarako: Kreditua Kontsumoa, Auto erosteko Kreditua. Etxe berrizatzeko Kreditua 2012/07/31 baino lehen egindako formalizazioetarako balio du. Erakunde mailegu-emailea: Kutxabank SA Kale Nagusia 30-32 48001 Bilbo, Bizkaiko Merkataritza Erregistroa. T.5226. L.O 0: BI -58729 F.1, 1.- I.F.K. A 95653077



Lain taldeak, lagunekin batera, elkartasun kontzertua antolatu du Villabonan, etzi. HITZA

SOS Lapurretak Jaialdia antolatu dute Lain musika taldeari laguntzeko

Ze esatek, Lauroba, Lain, Hesian eta Gugaz taldeek elkartasun kontzertua eskainiko dute, etzi

Asier Imaz Amasa-Villabona

Villabonako Lain musika taldearen entsegu lokalean lapurrak sartu ziren maiatzean. Bertan zeuden musika tresna guztiak eraman zituzten lapurrek, taldekideak lanabesik gabe utzia. Egoera honi aurre egiteko, Lainek eta bere inguruko lagun taldeek elkartasun kontzertu bat antolatu dute: SOS Lapurretak

Jaialdia. 17:30etik aurrera, etzi, bost talde igoko dira Errebote plazan jarriko dute oholza gainera, gerturazten diren guztien gozamenarako.

Lain taldeko kideen esanetan, kontzertuarekin eurek jasandako lapurreta salatu nahi dute, baina baita azkenaldian Villabonan gertatu diren lapurreta guztiak ere. Horrez gain, eskerrak eman nahi izan dizkie bertan egongo diren talde eta herritar guztiei, baita lapurretaren ondoren babesa azaldu dien guztiei ere: «Familia, lagunak, gaztetxeak, Villabonako Udala, hainbat enpresa, herritarrik... hasieratik gure ondoren egon dira, eta jasotako babes hori eskertu nahiko genuke».

↓ Musika Jaialdia

EKAINAK 16, ETZI

- **Non:** Villabonako Errebote plazan.
- **Ordua:** 17:30ean.
- **Taldeak:** Ze esatek, Lauroba, Lain, Hesian eta Gugaz.
- **Sarrerak:** Aurrez 5 euro eta bertan 8 euro.
- **Aurrez salgai:** Villabonan Apatx, Maixola, Irtazar eta Kazetarian; Tolosan Raku eta Denaken; Hernanin Leokan; Donostian Ttuntunen; Andoainen Herrikoan; Ordizian Urdinen; eta Beasainen Osin kafe antzokian.

Irudia › Amasa-Villabona



BALKOIAK LOREZ APAINTZeko GARAIA

Atari Bizi lehiaketa abian da Villabonan. Etxeetako balkoi eta atariak apaintzen hasiak dira herritarrik, izan ere, Santio jaietan sarituko da atari edo balkoirik ederrrena. Lehiaketaren irabazleak, bi lagunentzako bazkari eder bat eta 100 euroko

txartela irabaziko du, herriko dendetan gastatzeko. Bigarren saritua ere 100 euroko balea izango du, eta hirugarrenak 85 eurokoa. Herritarren parte hartzea girotzeko, iragan larunbatean *Impatiens Nueva Guinea* loreak banatu zituzten. A. IMAZ

Irudia › Amasa-Villabona



FLEMING-EN AGUR FESTA

Ikasturte amaierako jai arrakastatsua egin zuten Fleming ikastetxe-kideek, larunbatean. Pilota partidak, bertso saioak, dantza eta kantuak... eskaini zituzten ikasleek. Plazan, paella erraldoia prestatu eta dastatu zuten, eta ondoren, DJa, jolasak... izan zituzten. HITZA

Artea, dantza eta mendia jarri dituzte aukeran Zizurkilen

Hilaren 17an, igandean, trikuharrien ibilbidea egiteko aukera egongo da; luzeraren arabera bi irteera ordu daude

A. Imaz Zizurkil

Zizurkilgo kultur eskaintzaren barruan, eskulan eta *patchwork* ikastaroetako lanen erakusketa zabalduko dute bihar, hilaren 15ean. Iriarte kultur etxean egongo dira lanak ikusgai, hilaren 22ra bitarte.

Eskulanei begira egotetik dantzarako saltoa egun batean egin daiteke Zizurkilen, izan ere, etzi,

hilaren 16an, Festa Afrikarra antolatu dute Atxulondo tabernan. Erritmo bizien jaia 21:00etan hasiko da, afari eta ikuskizun batekin.

Hiru egunetan hirugarren plana Zizurkilen egin nahi dutenek, igandean, mendi ibilaldi herrikoia daukate aukeran: trikuharrien ibilbidea.

Ibilbide luzean parte hartzen dutenak 08:30ean irtengo dira Pedro Mari Otaño plazatik, Pagamendiko Haitz trikuharria ikusi eta Basopetan amaitzeko. Ibilbide laburraren alde egin dutenek, irteera ordua 11:30ean izango dute. Hauek Basopetatik irtengo dira, Belkoango trikuharria ikusi eta berriro Basopetan amaitzeko.

→ Laburrak

Behar Zana pilota txapelketako partidak

AMASA-VILLABONA › Behar Zana txapelketako partidak jokatu dituzte bihar, hilak 15, Villabonako pilotalekuan. Norgehiagokak 19:00etan hasiko dira, Aristimuño-Tellexea eta Errasti-Urruzola bikoteen arteko lehiarekin. Ondoren, Mujika-Labakak Iruarrizaga-Gerestaren aurka jokatu dute, pilota jaialdiari amaiera emanaz. Behar Zanatik herritarrik pilotalekura gonbidatu dituzte.

Musikoterapiaren izena emateko aukera zabalik

ANOETA › 60 urtetik gorakoentzat musikoterapia ikastaroa antolatu dute urritik maiatzera Anoetan. Ikastaroa astean behin izango da, eta hilero 10 euro ordaindu beharko dira. Izena emateko aukera ekainaren 20a arte egongo da zabalik.

Aire berriarekin datoz aurtengo Gazte Festak

Gazte berriek hartu dute parte antolaketan; bihar hasi eta igandera bitarte, hamaika ekitaldi izango dira

Iñigo Terradillos Ibarra

Abuztuan izaten dira Ibarra jaiak. Baina, sanbartolomeei itxaron gabe, asteburu honetan ere, jai giroa sumatuko da herrian. Ostiraletik igandera bitarte, Ibarra Gazte Asanbladak antolatutako festez gozatzeko aukera izango da.

Antolaketa da, aurtan bereziki nabarmendu nahi izan duten ezaugarria. «Urtero jende berdina arduratzen ginen antolaketaz, eta aire berria eman nahi genion; ibartar gazteei zuzenduriko deialdia egin genuen asanbladatik, Gazte Festen antolaketan parte hartzera anima zitezen, eta oso pozik gaude jaso dugun erantzunarekin», azaldu dute Gazte Asanbladatik. Hala, lehen batzar

bat egin zuten, gerturatu ziren gazte berriekin, eta ordutik, igandero bildu dira. Gainera, partaide berriak «lanerako gogoz» azaldu direla adierazi dute.

Bihar hainbat sagardo dastatzeko aukera izan eta gero, paella jan ahalko da plazan, eta kontzertuen ondoren, kantuan ariko dira gaztetxean. «Karaokea herriko jaietan egiten zen lehen, eta urte zahar gauean ere egin genuen iaz, eta oso ondo pasa genuen, beraz, errepikatzea erabaki dugun».

Larunbatean 80 lagun espero dituzte Xepla elkartearen egingo duten bazkarian. Egunean zehar kirola eta haurrentzat ikuskizunak izango dira, eta gauean, berriaz, dantzaldia.

Azken egunerako, *Conquistour* utzi dute. ETBko *El conquistador* saioko proba. Goizean sei herritarrek osaturiko taldea saioko sei partaideren aurka ariko da, herri kirolean, eta arratsaldean ibartar bat lehiatuko da saioko baten aurka. Elizara lehen igotzen denak irabaziko du. Ikuskizuna, beraz, ziurtaturik dago.



Aurtan ere, Sendi Ekintzaren eskutik, tortilla erraldoia egingo dute, etzi. A. IMAZ

↓ Egitaraua

EKAINAK 15, OSTIRALA

- **19:00.** Txupinazoa eta Lizarako Joaldunak.
- **19:30.** Sagardo dastatzea, plazan.
- **19:00.** Paella jatea.
- **23:00.** Izate eta Su Ta Gar taldeak. Tartean ekitaldia.
- **Ondoren.** Karaokea gaztetxean.

EKAINAK 16, LARUNBATA

- **10:30.** Gazteentzako 3x3 futbol txapelketa.
- **14:00.** Gazte bazkaria.
- **16:30.** Eriz magoa.
- **Ondoren.** Txokolatea eta tortilla jatea, Sendi Ekintzaren eskutik.
- **18:00.** Alurr dantza taldearen emanaldia, plazan.

- **23:30.** Ingo al deu taldearen kontzertua.

EKAINAK 17, IGANDEA

- **Goizez eta arratsaldez.** *Conquistour. El conquistador del fin del mundo* telebista saiotik sortua. Goizean (11:00) taldekako probak, eta arratsaldean (17:00) bakarkako duelua.

Irudia ◊ Gaztelu



HERRI KIROLEI BURUZ SOLASEAN

Txikia izanagatik ere, kirolari ugari eman dituen eta dituen herria da Gaztelu. Hain zuzen ere, gai hori jorratu zuten iragan ostiraletan izan zen *Herri kirolak eta apustuak* izeneko hitzaldian. Uli Mankomunitateak eta udaleko kultur batzordeak antolatu zuten, eta Joxe Antonio Garate Alkorta aritu zen hizketan. Antolatzaileek azaldukoaren arabera, «oso interesgarria» izan zen. HITZA

Irudia ◊ Leitza



NATUR BIDEAK BISITATZERA

Juan Luis Sanchez de Muniain Nafarroako Kultura, Turismoa eta Harremanen Institutuzionalen aholkularia, Carlos Erce Nafarroako Turismo eta Harreman Institutuzionalen Zuzendari Orokorra, Leitzako Udaleko eta Plazaolako ordezkariak bildu ziren iragan ostiraletan, Natur Bidea bisitatzeko asmoz. Instalazioak ikusteaz gain, partzuegoaren egungo proiektuak ezagutu zituzten. HITZA

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



30°
13°

GOIZA LAINTUTA
ARRATSALDEA LAINTUTA
BEROENA 31°
HOTZENA 15°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitateak: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak

BERTAKO HEDABIDEAK



Galtzaundi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. **Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zuzurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeako, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Irudia Tolosa



AGENDA 21EKO IV. TOPAKETA EGIN DUTE

Eskualdeko 11 herritako 22 ikastetxeko 7.200 bat ikaslek hartu dute parte amaitzean den ikasturte honetan, Tolosaldeko Eskola Agenda 21 hezkuntza proiektuan. Azken hilabeteetan ikasleek biodibertsitate lantzen aritu dira eta atzo, Tolosako udal musika eskolan,

IV. Topaketan hartu zuten parte. Goizean goiz elkartu ziren ikasle, irakasle, guraso eta Agenda 21ean lanean aritu diren hainbat teknikari, eta helburua, elkar ezagutzeaz gain, esperientziak trukatzeari izan zen. Topaketa talde lanean oinarritu zen. LURKIZU

Agurrak



Urte askoan!
Dune Sarasola Balerdi (Alegia).
Gaur 2 urte!
Zorionak eta muxu asko etxeko guztien partetik.

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

agurrak

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Olarrea, I. Korreo kalea, 2. Telefonoa: 943 67 01 28.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. Telefonoa: 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Agenda

DEIALDIAK

- **Tolosa.** EAJ alderdiak *Atez ateko ez, birziklapena bai* izenburupean hitzaldia antolatu du gaurko. Udaltxeko bilkura aurretikoan, eta Karlos Ormazabal Garapen Iraunkorrekoko diputatu ohia izango da hizlaria.
- **Tolosa.** Tolosa Kantariko entsegu, gaur, 20:00etan, udal musika eskolan.
- **Tolosa.** Galtzaundi irakurle taldearen solasaldia, gaur, 10:30ean, kultur etxean. Ikasturteko azken saio honetan

Itxaso Martinen *ni, Vera* izango dute hizketagai.

- **Tolosa.** Txinparta elkarteak antolatu duen Felix Yarzaren Omenezko VIII. Pintura Lehaketan izena emateko azken eguna da gaur.
- **Tolosa.** Larunbatean San Frantzisko pasealekuan izango den kuadrilen arteko XIV. Street Basket Txapelketan izena emateko 10 euro ordaindu behar da, eta www.takesb.com helbidean eman behar da.
- **Bedaio.** Igandeko, hilaren 17ko, VI. Mendi Martxan edo

V.BTT Bizikleta Ibilaldian parte hartu nahi duenak www.bedaio.com webgunen, mendimartxa@bedaio.com helbidean edo 629 199 166 telefono zenbakira deituta eman behar du izena.

- **Tolosa.** Tolosaldea Igeriketa Kirol Taldeak hogeitau urte baino gehiago dituztenei zuzendutako ikastaroa antolatu du. Irailean hasiko dira eskolak eta gaur da izena emateko azken eguna. 667 631 742 telefono zenbakira deitu behar da.
- **Villabona.** Santos jaietako

egitarauaren azala egiteko lehiaketa abiarazi du udalak. Lanak hilaren 25a baino lehen utzi behar dira udal bulegoetan. Aurkezten diren lanetan *Villabona-Santio Jaiak, uztaila 2012* azaldu behar du. Gutxieneko formatua 18x24 zentimetrokoa izan behar du, eta lanak inoiz argitaratu gabeak behar dute izan.

- **Tolosa.** Iturriza jubilatuen elkartearen mus txapelketan izena emateko bulegora joan behar da hilaren 19a baino lehen, 10:00etatik 12:00etara.

Birziklatze tasak

Irura

33%



Zabortegira doana

Usurbil

10%



Irura



Osasunagatik
Ingurugiroak kezkaten gaituelako
Ongizate arrazoiengatik
Seme-alabengatik
Arrazoi ekonomikoengatik

ondo
egitera
goazz
IRURXO UDALA